

ZER EGIN GENUEN 2017KO LEHENENGO GETXOMEETING-EAN?

URTARRILAREN 12KO SAIOA

Hobeto elkar ezagutzen jarraitu dugu 2017ko lehenengo GetxoMeetingean, konfiantza-harremanak ezarriz eta kontaktu profesional berriak sortuz.

Urte berriarekin batera, aurpegi berriak agertu ziren topaketan. Horiek ez ezik, esperientzian berriz parte hartu zuten eta ohikoak bihurtu diren beste batzuk ere izan ziren bertan.

Hamabost egunean behineko topaketa hauei dagokienez, bakoitzak espero duenaz hitz egin genuen. Hala, berretsi zen batak bestearengatik ikasteko gogoia, bai eta elkarren artean inspiratzekoa ere, ekintzaileen komunitateko beste kideen ekarpenekin.

Lehenengo lan-dinamikan, Pictionary jokoan aritu ginen eta horren bitartez, marraztuz, ezagutu genuen zertan dihardun bakoitzak eta gure enpresa-proiektua komunikatzen trebatu ginen.

Gainera, parte-hartzaile bakoitzak aukera izan zuen adierazteko zein behar dituen eta zer-nolako bezero dituen xede, besteek ekarpenak egin ziezazkioten eta lagun ziezaioten bere helburua lortzeko bidean.

Ondoren, taldeka egin genuen lan, gure negozioetako bezero-moten arabera banatuta, eta gomendioak eman genizkion elkarri, bakoitzari merkataritza-harremanak sendotzeko balio izan zaigunari buruz.

Labur, saio horri esker, bertaratutakoek beren negozioetan aurrera egiten jarraitu ahal izan zuten, gomendioak jaso eta kontaktu berriak egin baitzituzten.

Hurrengo saioa: urtarrilaren 26an egingo da, ostegunean. Horretan, aukera izango dugu berriz ere balio handiko sarea handitzen jarraitzeko eta Getxon ekintzaileen komunitatea eratzeko. Gogoratu nahi dizuegu, topaketa bakoitzerako izena eman behar dela.

Kide berriak: GetxoMeetingek, 2017an, saioetara etortzeko aukera emango die Getxori profesionalki lotuta daudenei, ezinbestean udalerrian bizi edo lan egin behar izan barik. Helburua ekintzaileen ekosistema aberastea da eta dagoeneko sortu den komunitatearen aukerak areagotzea. Beraz, udalerriko kanpoko 4 lagunek, gehienez ere, izena emateko aukera izango dute.